


# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA



## Partekatu



## Elikagaia



# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA

## Sarrera



Ikastetxean askotan ikaslearengandik hurbileko egoeren bidez edukin-kurrikularrak burutu ahal izateko eragozpenak aurkitzen dituzue, alegia, egoera errealak. Proiektu honek aldi berean edukiak eta errealitate soziala aztertu eta hobetzeko aukera eman dezakeelakoan gaude.

Proiektu hau irabazi-asmorik gabeko erakundea den Arabako Elikagaien Bankua, boluntarioek osatzen dutena, gizakiaren oinarritzko premia elikagaia, konpontzen eta, elikagaien xahutzearen aurka borrokatzen saiatzen da. Horretarako, elikagaien bilketa bultzatzen du biltegiatzeko eta, beranduago, behartsuak elikatzen dituzten laguntza-zentron artean banatzeko asmoz.

Proiektu hau **Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei** zuzenduta dago. Horren bidez, nahi dugu ikasleak konturatzea herritar batzuek baliabideak xahutzen dituzten bitartean, beste batzuk gabezia larrian bizi direla, baita aztertzeko eta kausa batzuk ulertzeko, irtenbideak bilatzeko eta hobetzeko konpromisoa hartzeko gai izatea ere, elkartasun jarrerak eta balioak garatuz.

Proiektu honen Boluntario- taldea Vitoria-Gasteizko eta Arabako ikastetxeak bisitatzeko asmoarekin sortu da, ikasleek goseari eta elikagaien zarrastelkeriari aurre egiteko sentsibilizatzeko, pertsonen arteko elkartasuna sustatzeko eta boluntariotza eraldaketa soziala eta herritarren parte-hartzeko gisa bultzatzeko asmoz.

# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA


## Helburuak



Elikagaien Bankuak eta beren jarduerak ezagutaraztea ikasleei baita Arabako Elikagaien Bankuko funtzionamendua, helburuak, proiektuak eta hartzaileak ere.

- Gaur egungo gizarte-ezberdintasunei buruz ikasleak sentiberatzea, pobrezia eta goseko egoeren aurrean elkartasun-balioak sustatuz eta ikasturtean zehar elkartasun-bilketak bultzatuz.
- Elikagaien zarrastelkeria saihesteko hezitzea. Ikasleak xahubideari buruz sentiberatzea.
- Ikasleenganako elkartasuna sustatzea. Behartsuak hurbil daude eta, beraz, guztiok parte hartu behar dugu arazo hau konpondu ahal izateko.
- Parte-hartze eta gizarte lankidetzaren sustatzea. Boluntarioek garrantzi handia dute gizartearen eraldatzeko eragile gisa.


# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA



## Metodologia

Gure asmoa da lurraldeko ikastetxe-kopuru handi batek Bankuari laguntzea, elikagai-bilketen bidez.

Aldez aurretik ikastetxean bertan ekintzak burutuko dira ikasleria sentiberatzeko eta egoera honen zergatiak eta erantzun solidarioa baten beharra ulertzen laguntzeko.



Proiektu honen metodologian proposatzen diren ekintzak zehatzak dira eta haien artean erlazionaturik daude.

- Ekintzen abiapuntua errealitateko egoera larri bat da, zeini erantzun egokia eman behar zaion.
- Egoera ikasleen interesekin lotuta dago.
- Bere burutzeak ikasleriaren rol aktiboa erakartzen du, betebeharrak identifikatuz, parte-hartzea planifikatuz eta burutuz.
- Funtzionalak diren edukiak aurkezten, burutzen edo erabiltzen dira egoera larria konpontzeko asmoz.
- Berdinen arteko lagunartean oinarritzen dira.

# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA



## JARDUERAK

### 1.- Sentiberatzeko hitzaldiak

Saioak 45-60 minutuko iraupena izango du, gutxi gorabehera, ikastetxeko ordutegi-moduluetara egokituz. Jarduera taldearentzat eta eskolarentzat da. Ikasleen gela berean egingo da, goizez, betiere ikasleen atsedenaldia errespetatuz.

Hitzaldiak ikastetxearekin hitzartutako data batean izango dira. Ikastetxearen aukeran, euskaraz edo gaztelaniaz izan daitezke.

#### Helburuak:

- Ikasleak motibatzea
- Krisialdiari eta bere ondorioei buruz daukaten ezagupena partekatzea.
- Informazioa aztertu eta laburtzea.



# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA



Zatiak hauexek izango dira:

- **Jarduerari hasiera emateko jokua** “*Zein da zure janaririk gustukuena?*”
- **Gaiari buruzko “Sentsibilizazio-Bideoa”** ikustea ikasleak sentiberatzeko asmoz
- Elikagaien Bankuari buruzko **hitzaldi interaktiboa**.  
Nortzuk gara, gure helburuak, onuradunak, nondik datoz elikagaiak, boluntarioak, nola lagun dezakezu...
- Jardueraren **balorazioa**



# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA

## 2.- Elkartasun-ekintza burutzea



### Helburuak:

- Ikasitakoa aplikatzea inguruko betebeharrei erantzuna emateko.
- Norberaren ekimena garatzeko egoerak proposatzea.
- Konpromisoa, elkartasuna, ahulenekiko enpatia eta antzeko balioak garatzea.
- Behartsuei laguntzen dieten erakundeekin parte hartzea.

Ekintza hau ikastolako ikasleriak burutuko du, zuzendaritzaren baimenez eta Bankuaren boluntarioen laguntzaz.



# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA

## Ekintzaren sekuentziak:

- Elikagaien bilketako kanpaina prestatzea ikastetxean.
- Eskatu idatziz kanpaina burutzeko baimena ikastolaren zuzendaritzari.
- Eskatu Elikagaien Bankuari bere parte-hartzea eta laguntza.
- Lelo bat aukeratzea, “Partekatu zure elikagaiak” adibidez.
- Talde handian eta, posible baldin bada Bankuaren boluntario batekin, eztabaidatu eta erabaki nola antolatu kanpaina, nola sailkatu elikagaiak, bilketa eta emate-datak...

- Kanpaina burutzea.

Talde handian elikagaien bilketaren ordutegiak, txandak eta beren arduradunak antolatu.

- Bankuari elikagaiak ematea.
- Eskatu idatziz elikagaien ematearen ekitaldia burutzeko baimena zuzendaritzari.
- Antolatu ekitaldi hau burutzeko deialdia, Bankuaren arduraduna, zuzendaritza, irakasleari, ikasleari, familiak ... gonbidatuz.





# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA

## 3. Elikagaien-Bankura bisita



Helburuak:

- Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek eta helburu humanitarioak eta solidarioak dituen erakundeak nola funtzionatzen duen jakitea.
- Boluntarioen lana aintzat hartu eta haien garrantzia aitortzea.
- Bildu informazioa gero ikerketa betetzeko lagun dezan.

Ekintzaren denboralizazioa :

- Bisitaren prestakuntza  
Aldez aurretik, ikasleek bisitaldian egin beharreko galderak presta ditzakete.
- Bisita burutzea  
Ikasleak bi taldetan banatzea. Talde batek boluntario baten gidaritzapean egiten du bisita, eta besteak, Bankuko Ikasgelan, boluntariotzaren gaia lantzen du. Gero, bigarren ordu erdian, taldeek elkar trukutzen dute



# ARABAKO ELIKAGAI BANKUAREN SENSIBILIZAZIO ETA ZABALKUNDE TALDEA



[elkartasuna@bancoalimentosaraba.org](mailto:elkartasuna@bancoalimentosaraba.org)